**ZIRKULAZIOARI ETA HERRI BARRUKO BIDEEN ERABILEREI BURUZKO UDAL ORDENANTZA**

## ZIOEN AZALPENA

Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateginean, urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, besteak beste, zirkulazioko udal ordenantza bidez hiri barruko bideen erabilera zehaztea, aparkalekuak modu zuzenean banatzeko arauak ematea eta udalaren titulartasuneko bideetan egindako zirkulazioko arau-hausteak zehatzeko eskumenak ematen dizkie udalerriei

Hortik abiatuta, mugikortasunaren ikuspuntutik herri eroso eta atsegina eraikitzeko baldintzak ezartzea da ordenantza honen lehentasuna eta xedea. Horretarako, azken hamarkadetan motordun ibilgailuei eskaini zaizkien espazioak berreskuratu eta bizikleten erabilera zein oinezkoen mugikortasuna bultzatzen ditu. Aldi berean, bizikleten, oinezkoen eta mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen arteko bizikidetza orekatua uztartzen ditu hurrengo arautegiak. Egitasmo horretarako testu artikulatuak lehengo tituluan, bere osotasunean, bizikleten eta mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen, aurrerantzean (MPI), erabilera garatzen du. Ildo bera jarraituz, bizikleten lapurretak saihesteko eta udaltzainek bere jardunean jabetzen direnak bueltatzeko, aipaturiko ibilgailuen erregistroa eratzeko oinarriak ezartzen ditu ondorengo ordenantzak.

Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuei dagokienez, berauen erabilera arautzen duen erregelamendu propio garatzeko dago. Hortaz, ibilgailu hauen marko juridikoa argitzeko trafiko zuzendaritzak igorritako 2019/S-149 TV-108 instrukzioa transpozizionatu eta garatu da. Atal honen ezaugarri adierazgarrienak, MPI ibilgailuen gidariek -UNE-EN1078- homologazio araua betetzen duten kaskoa nahitaez erabili beharko dutela eta hauen gidatzea 16 urtetik gorakoentzat mugatzen dela lirateke.

Hiri barruko gehienezko abiadura hogeita hamar kilometro ordura mugatzen da; funtsean, honekin, bi helburu lortu nahi dira: Lehena, adituen esanetan harrapaketak suertatzen direnean, ibilgailuaren abiadura 40 kilometro orduko azpitikoa bada oinezkoaren bizi iraute aukerak biderkatu egiten dira. Bigarrena, motordun ibilgailuak aipaturiko abiaduran atmosferara igortzen duten CO2 gasen kantitatea murriztu egiten da.

Arreta bereziko 4 gune ahalbidetuz, oinezkoen, bizikleten eta mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen erabilera uztartzearen aldeko hautua egiten da. Oinezko-bizikleten gunean , oinezkoen, bizikleten eta mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen erabilerara mugatzen diren plaza, kale eta bestelako errepideak zehazten dira. Aldi berean, bide gorrien esanahia eta hauen erabileraren nondik norakoa deskribatzen da.

Horrez gain, beste hiru gune egituratzen ditu testu artikulatuak; Gune Historikoa, Alde Zaharra, eta Kanttoipe guneak, hurrenez hurren. Gune hauek II. Eranskinean araututako salbuespen eta ordutegitik at, oinezkoentzako, MPI zein bizikletaz mugitzeko errepideak izango dira eta edonola ere, uneoro, motordun ibilgailuekiko lehentasuna izango dute. A la eta guztiz ere, aipaturiko guneetan bizi diren egoiliarrei nahiz komertzioren bat dutenei zama lanak egiteko baimen iraunkorra eskuratzeko eskubidea aitortzen zaie.

Udalak mugikortasuna urrituko desgaitasuna duten pertsonen integrazioa soziala sustatzeko ahaleginetan, hiri barruko bideetan aparkalekuen banaketa egiterakoan arreta berezia eskainiko die. Hortaz, soilik, martxoaren 22ko 50/2016 dekretuan arautzen den aparkatze-txartelen onuradunek aparkatu ahalko dute desgaitasuna duten pertsonentzat prestatutako aparkatzeko lekuetan. Aldi berean desgaitasuna duten aparkatze txartelaren erabilpen makurra egiten dutenei ehuneko hogeita hamarreko gain-zigorra ezartzen zaie eta dokumentua bera faltsutzen dutenei laurehun eurotakoa isuna.

ZIRRIBORROA

Ditugun aparkalekuen kudeaketarik eraginkorrena egin behar da. Zentzu honetan, egunerokotasunean, herritarrek duten beharrei erantzuteko nahitaezkoa da motordun ibilgailuen artean ahalik eta errotaziorik haundiena erdiestea. Orokorrean auto-karabanek luzaro egon ohi dira geldi aparkaleku berdinean, hortaz herri barruko kaleetan aparkatzea debekatzen da; aitzitik Udalak ibilgailu hauentzako aparkatzeko leku egokiak egokituko ditu hamabi hilabeteko epean.

Zehapen-araubideari dagokionez, isunaren zenbatekoa arau hauslearen diru sarreren araberakoa izan beharko luke; progresiboa. Ponderazioa xede duen zirkulaziorako ordenantza honek, egungo marko juridikoak eskaintzen dizkion eskumenak kontutan izanda, eta beti ere norbanako arau hauslearen egoera ekonomikoari erreparatuta, behin bakarrik bederen, 12 hilabete jarraian langabezia daramatzatenak edo/eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenak, isuna, bideko sentsibilizazio ikastaro bategatik aldatu ahalko dute .

Bide-orri berdina jarraituz, arau hauste arin bategatik salatuak direnak eta baldintza jakin batzuk betetzen dituztenak, ohartarazpen zigorra jasotzeko eskaera luzatu dezakete horretarako behar diren alegazioak eginez.

ZIRRIBORROA

# ZIRKULAZIOARI ETA HERRI BARRUKO BIDEEN ERABILEREI BURUZKO UDAL ORDENANTZA

## -ATARIKO TITULUA-
## XEDEA, ESKUMENAK ETA APLIKAZIO EREMUA.

**Xedea**

**1. artikulua.-** Ordenantza hau emateen da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 25. artikuluko b) eta II) atalek udalerriei trafikoaren eta zirkulazioaren arloan emandako eskumenari jarraiki, baita Ondarroako udalerriko trafikoaren eta bideen erabileren egungo egoerara egokitzeko beharragatik ere, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Oinarriak arautzen dituen uztailaren 25eko 18/1989 Legea eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua aplikatzearen ondorioz. Lege hori azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, garatzen du.

**Aplikazio eremua.**

**2. artikulua.-** Ordenantza honetako aginduak udalerri osoan, herri barruko bideetan eta herriz kanpoko bideetan aplikatu ahal izango dira, baldin eta horien gaineko eskumena Udalari laga bazaio, eta honako hauek bete beharko dituzte: zirkulaziorako egokiak diren herri barruko bide eta lursailen titularrek eta erabiltzaileek, horretarako gaitasunik izan gabe erabilera komunekoak diren bide eta lursailen titularrek, eta, bestelako araurik ezean, zehaztu gabeko erabiltzaile talde batek erabiltzen dituen bide eta lursail pribatuen titularrek.

**3. artikulua.-** Herri barruko bidetzat hartzen da eraikinak barne hartzen dituen espazioa, zeinaren sarrera eta irteera bideetan, hurrenez hurren, herrian sartzeko (S-500) eta herritik irteteko (S-510) seinaleak dauden.

**4. artikulua.-** Nolanahi ere, ordenantza honen I. Eranskinean jasotakoak dira udal eskumeneko bideak.

**Arau subsidiarioak.**

**5. artikulua.-** Ordenantzak berariaz arautzen ez dituen gaietan, edo ordenantzaren arabera udal agintaritzak arautzen dituen gaietan, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina, ondorengo aldaketak eta garapen erregelamenduak onartzen dituen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua aplikatuko da.

**Udal eskumenak.**

**6. artikulua.-** Udalak Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015

ZIRRIBORROA

Legegintzako Errege Dekretuaren 7. artikuluan eta hura garatzeko arauetan esleitzen zaizkion eskumenak baliatuko ditu.

**7. artikulua.**- Bere titulartasuneko herri barruko bideetako trafikoa antolatzea eta kontrolatzea, bai eta bide horiek zaintzea ere, agente propioen bidez; bide horietan egiten diren arau hausteak salatzea; eta arau hauste horiek zigortzea, beste administrazio bati berariaz esleitzen ez zaionean.

**8. artikulua.**- Herri barruko bideen erabilerak Zirkulazioko Udal Ordenantzaren bidez arautzea, bateragarri eginez aparkalekuak erabiltzaile guztien artean banatzea eta ibilgailuen zirkulazioa arintzea eta oinezkoek kaleak erabiltzea, bai eta TAO aparkaldi mugaturako neurriak ezartzea ere, aparkalekuen txandakatzea bermatzeko, arreta berezia jarriz mugikortasuna murriztuta daukaten eta ibilgailua erabiltzen duten pertsona desgaituen beharrizanei, hori guztia pertsona horien integrazio sozialaren mesedetan.

**9. artikulua.**- Ibilgailuak herri barruko bideetan ibilgetzea, baldin eta ez badute aparkatzeko gaitasuna ematen duen titulurik denbora mugatuko eremuetan (TAO), edo emandako baimena gainditzen badute gidaria identifikatu arte.

**10. artikulua.**- Kirol probak baimentzea, oso-osorik eta herrigunetik bakarrik igarotzen direnean, zeharbideak izan ezik.

**11. artikulua.**- Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 5. artikuluaren o) atalean aipatzen diren probak egitea.

**12. artikulua.**- Herri barruko bideak ixtea, beharrezkoa denean.

ZIRRIBORROA

## -II. TITULUA-
## BIDE SEGURTASUNA ZAINTZEA ETA KONTROLATZEA

### I. KAPITULUA.- TRAFIKOA ZAINTZEA ETA KONTROLATZEA.

**Trafikoko agenteak.**

**13. artikulua.-** Udaltzainei eta haien laguntzaileei dagokie, zirkulazioari, diziplinari eta bide segurtasunaren zaintzari dagokienez, bai eta mugikortasuna sustatzeari dagokionez ere, besteak beste, udal titulartasuneko bideetan trafikoa antolatu, seinaleztatu eta zuzentzea. Halaber, trafiko agenteei dagokie trafikoa arautzea, beren argibide eta seinaleen bidez, eta, hala badagokio, ordenantza honetako eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legean jasotako aginduen aurka egiten diren arau hausteak zaintzea eta, hala badagokio, salatzea, indarrean dagoen araudiarekin eta trafikoaren arloan eskumenak dituzten organo eta agintaritzek ematen dituzten xedapenekin bat etorriz.
Halaber, Udaltzaingoko agenteei dagokie herri barruan gertatutako zirkulazio istripuengatiko atestatuak instruitzea, bai eta laguntza ematea ere, istripu kasuetan.

**Trafikoko agenteak ez diren pertsonek trafikoa arautzea eta seinaleztatzea.**

**14. artikulua.-** Udaltzaingoko agenterik edo haien laguntzailerik ez badago, agintaritzako beste agente batzuek arautu ahal izango dute trafikoa, baldin eta berehala jardutea eskatzen duen urgentzia edo larrialdi egoera batez ari bagara; halakoetan, zirkulazioa arautu ahal izango dute.
**15. artikulua.-** Ordenantza honen xede diren bideetan egiten diren obrak seinaleztatzeko eta trafikoa arautzeko erantzukizuna horiek egiten dituzten erakundeei edo horien esleipendun diren enpresei dagokie, ***erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera***. Bidearen erabiltzaileek nahitaez bete behar dituzte obra horietan trafikoa arautzen duten langileen jarraibideak.
**16. artikulua.-** Era berean, garraio bereziaren araubideko ibilgailuei laguntzen dieten langileek zirkulazioa arautu ahal izango dute, paleta bati erantsitako R-200 eta R-400 seinale bertikalak erabiliz, eta, baliabide berarekin, eskola patruilek gelditzeko eskatu ahal izango diete bide erabiltzaileei.
**17. artikulua.-** Udal organo eskudunak baimena ematen badu bideetan zirkulazioa mugatzea komeni den kirol jarduerak edo ekitaldiak egiteko, emandako baimenak babes zibileko langileak edo erakunde arduradunaren boluntarioak gaitu ahal izango ditu ibilgailuak edo oinezkoak ukitutako eremu edo ibilbidera sar ez daitezen.

ZIRRIBORROA

## II. KAPITULUA. APARKATZEKO LEKUEN ANTOLAMENDUA

**Aparkatzeko eta zirkulatzeko antolamendua baimentzea.**

**18. artikulua.-** Mugikortasunaren arloan eskumena duen udal organoari bakarrik dagokio erabilera publikoko bideetan aparkatzeko eta zirkulatzeko antolamendua baimentzea, nahiz eta bide horiek jabetza pribatukoak izan.

**19. artikulua.-** Horrenbestez, debekatuta dago, eta arau hauste astuntzat hartuko da, partikularrek aparkatzeko lekuak antolatzea, hau da, aparkalekuak gordetzea, eta ezin izango da zirkulazioa moztu, ezta inolako seinalerik edo adierazpenik jarri ere, berariazko baimenik gabe.

# -III. TITULUA-
# BIZIKLETEN ZIRKULAZIOA ETA APARKALEKUA

## I. KAPITULUA.- BIZIKLETEN ETA PEDALEI ERAGITEKO LAGUNTZA DUTEN BIZIKLETEN ZIRKULAZIOA

**Pedalei eragiteko laguntza duten bizikleten definizioa eta sailkapena**

**20. artikulua.-** pedalei eragiteko laguntza duten bizikletatzat hartzen dira pedalkada lagundua duten zikloak, motor elektriko osagarri batez hornituak, 250W edo gutxiagoko potentzia nominal jarraitua dutenak, potentzia progresiboki gutxitzen dutenak eta, azkenik, ibilgailuaren abiadura 25 km/h-ra iritsi baino lehen edo txirrindulariak pedalei eragiteari uzten badio eteten direnak.

**Arau orokorrak.**

**21. artikulua.-** Arau orokor gisa, bizikletek eta pedalei eragiteko laguntza duten bizikletek nahitaez galtzadatik zirkulatu behar dute, eta paraleloan zirkulatu ahal izango dute.

**22. artikulua.-** Bizikletentzako erreserbatutako erreiak daudenean (bizikleta errei gisa seinaleztatuko dira berariaz), bizikletak eta pedalei eragiteko laguntza duten bizikletak errei horietan ibiliko dira, seinaleak, zirkulazioaren antolamendua eta gainerako ibilgailuentzat xedatutako lehentasun arauak errespetatuz. [1]

**23. artikulua.-** Pedalei eragiteko laguntza duten bizikletak -oinezkoen pilaketak daudenean izan ezik, zeren orduan oinez ibili beharko baitute, eta betiere oinezkoen lehentasuna errespetatuz- leku hauetan ere ibil daitezke:
a. Parke publikoetan, gehienez 10 km/h-ko abiaduran.

---

[1] Espaloiaren zati bat bizikletentzako uztea posible da orain, aztertzeko gaia zuentzat. Auzitegi Gorenak 2010eko azaroaren 8an emandako epaian adierazi duenez, "lehen oinezkoentzat bakarrik erabiltzen zen espaloi bat edo haren zati bat mugatzen denez, bizikletek bertatik zirkulatu ahal izateko, eremu horrek utzi egiten dio du nahitaez oinezkoentzat izateari"; beraz, bizikletak espaloietan ibiltzeak, aipatutako epaiak jasotzen dituen baldintzetan, ez du Zirkulazio Erregelamendu Orokorra urratzen".



ZIRRIBORROA

b. Espaloietan eta oinezkoentzako beste gune batzuetan, 2 metro baino gehiagoko zabalera eta metro bateko espazio librea dagoenean, eta gehienez ere 10 km/h-ko abiaduran.

**24. artikulua.-** Artikulu honetan adierazitako ondorioetarako, pilaketa dagoela ulertuko da bizikletaren eta zirkulatzen ari diren oinezkoen artean metro bateko tartea gorde ezin denean, edo lerro zuzenean 5 metro jarraian eta ahal dela bidearen erditik zirkulatu ezin denean.

**25. artikulua.-** Galtzadatik zirkulatzen ari diren txirrindulariek espaloietatik hurbilen dauden erreietatik zirkulatuko dute ahal dela, eta espaloien erdialdea okupatu ahal izango dute, eta indarreko zirkulazio arauen arabera ibilgailuek dauzkaten pasatzeko lehentasunak edukiko dituzte. Ezkerrerako biraketa baimendua eginez gero, txirrindulariek egoki diren erreiak erabili ahal izango dituzte.

**26. artikulua.-** 12 urtetik beherakoek, haien zaintzaz arduratzen den pertsonaren erantzukizun pean, bizikletaz ibili ahal izango dira espaloietan, abiadura oinezkoen abiadurara egokituz.

**27. artikulua.-** Bizikletek, baimendutako espazio estuetan dabiltzanean, lerroan zirkulatuko dute, paraleloan edo taldean zirkulatu gabe.

**Bizikleten zirkulazioari buruzko beste arau batzuk.**

**28. artikulua.-** Oro har, debekatutzat joko da:
a. Gurpil baten gainean bakarrik ibiltzea.
b. Beste pertsona bat eramatea, pertsona heldu batek aulkitxoan garraiatutako 7 urtetik beherako haurren kasuan izan ezik.
c. Eskulekua askatzea, maniobra seinale bat egiteko beharrezkoa denean izan ezik.
d. Beste ibilgailu batzuei heltzea, atoian eramateko.
e. Ibilgailuen edo oinezkoen artean sigi-saga ibiltzea.
f. Soinu hargailu edo erreproduzitzaileei konektatutako entzungailuak erabiliz zirkulatzea.
g. Bizikleta erabiltzea zailtzen edo ikusmena murrizten duten objektuekin kargatzea.

1. Gauez dabiltzan bizikletek argiak eta elementu islatzaileak eraman behar dituzte, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duen abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren 22. artikuluko 2. eta 4. ataletan jasotzen den bezala.
2. Bizikletek atoia eraman ahal izango dute, homologatuta, abereak edo salgaiak garraiatzeko, egunez eta ikuspena murriztu gabe ibiliz gero, eta abiadura ertainean, gidaria adin nagusikoa denean eta bere ardurapean betiere.
3. Bizikletek, gidaria adin nagusikoa denean eta bere ardurapean, zazpi urtetik beherako adingabeak eraman ahal izango dituzte eserleku gehigarrietan edo atoian, bizikletei akoplatuta, behar bezala egiaztatuta eta homologatuta, gailu horiek ezarritako pisu mugekin. Adingabeek kasko homologatua eraman beharko dute nahitaez.

ZIRRIBORROA

**Bizikletak aparkatzea.**

**29. artikulua.-** Bizikletak, ahal dela, egokitutako lekuetan aparkatu behar dira, eta oinezkoentzat hiru metroko espazio librea utzi behar da beti.
**30. artikulua.-** Berariaz debekatuta dago bizikletak leku hauetan aparkatzea:
a. Jarduerarako ordutegian zamalanak galtzadan egiteko erreserbatuta dauden lekuetan.
b. Desgaitasunen bat duten pertsonentzako aparkalekuetan.
c. Larrialdi eta segurtasun zerbitzuetarako berariaz gordetako aparkalekuetan, zentro edo instalazio publikoetan.
d. Jarduera orduetan, jendearentzako establezimenduak diren lokaletako larrialdi irteeren aurrean.
e. Garraio publikoaren geltokietan.
f. Oinezkoentzako pasabideetan.
g. Ibilgailu motordunentzako aparkalekuetan, aparkalekuok seinale bertikalen edo horizontalen bidez behar bezala seinaleztatuta daudenean.

**31. artikulua.-**

1. Udalak bizikleten erregistro bat sortuko du, borondatez inskribatzeko, lapurretak edo galerak prebenitzeko eta bizikletak errazago aurkitzeko. Ondarroako Udaltzaingoak kudeatuko du erregistro hori. Bertan, serie zenbakia daukaten bizikletak erregistratu ahal izango dira.
2. Hamalau urtetik gorako pertsonek erregistratu ahal izango dituzte bizikletak, datu hauek emanez:

a. Titularraren izen-abizenak.
b. Helbidea eta harremanetarako telefonoa.
c. Nortasun agiriaren zenbakia.
d. Bizikletaren serie zenbakia.
e. Bizikletaren marka, modeloa eta kolorea.
Hamalau urtetik beherako bizikleten kasuan, izen ematea haien gurasoen edo legezko tutoreen izenean egingo da.
**32. artikulua.-** Ibilgailua erregistroan inskribatzean, titularrak adierazi ahal izango du borondatezko istripu asegururik badaukan.
**33. artikulua.-** Udal organo eskudunaren erabaki edo ebazpen bidez ezarriko dira erregistroaren funtzionamendurako jarraibideak.
**33. artikulua.-** Erregistroan inskribatzeak ez du aldez aurreko juzgurik ematen bizikletaren jabetzaz.

ZIRRIBORROA

## II. KAPITULUA.- MUGIKORTASUN PERTSONALEKO IBILGAILUAK

**34. artikulua.-** DGTk aurkeztutako 2019/S-149 TV-108 jarraibidean ezarritakoaren arabera, honela definitzen da Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailua: gurpil bat edo gehiago dituen ibilgailua, plaza bakarra duena eta motor elektrikoz bakarrik propultsatua, ibilgailuari 6 eta 25 km orduko abiadura eman diezaiokeena diseinuaren arabera.

**Honako hauek definizio horretatik kanpo gelditzen dira:**

a) **Autooreka sistemarik gabeko ibilgailu jarlekudunak.**
b) **Lehiarako sortutako ibilgailuak.**
c) **Mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuak.**
d) **100 VCC edo 240 VAC baino lan tentsio handiagoko ibilgailuak.**
e) **168/2013 (EB) Erregelamenduaren eremuan sartzen diren ibilgailuak.**

**Oro har:**

a) **6 km/h-ko abiadura gainditzen ez duten tramankuluak jostailutzat hartzen dira.**
b) **Ibilgailuak 25 km/h baino abiadura handiagoa hartzen badu, ez da mugikortasun pertsonaleko ibilgailutzat hartuko.**

**Arau orokorrak**

**35. artikulua.-** Arau orokorra da mugikortasun pertsonaleko ibilgailuek galtzadan ibili behar dutela nahitaez, eta espaloietatik hurbilen dauden erreietan. Parke publikoetan ibili ahal izango dira, oinezkoen lehentasuna errespetatuz eta gehienez 10 km/h-ko abiaduran.

**36. art.-** Ibilgailu mota honekin zirkulatzeko gutxieneko adina 16 urtekoa da.

**37.artikulua.-** Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen gidariek eta bidaiariek bizikletak gidatzeko homologatutako babes kaskoak behar bezala erabili beharko dituzte (UNE-EN1078 araua), ordenantza honen 2. artikuluan jasotako bideetan zirkulatzen ari direnean.

**38. artikulua.-** Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuek eta elektrikoki propultsatutako gainerako ibilgailu arinek pertsona bakarra eraman ahal izango dute.

**39. artikulua.-** Patinek, patineteek, monopatinek eta antzekoek ezin izango dute galtzadatik zirkulatu. Oinezkoek lehentasuna duten espaloietatik eta guneetatik bakarrik ibiliko dira, eta ezin izango dira zirkulazio-erreietan sartu. Ibiltzean, oinezkoen martxara egokitu beharko dute beren martxa, eragozpenik edo arriskurik sortu gabe, eta inola ere ez dute lehentasunik izango oinezkoen aldean.

ZIRRIBORROA

## -IV. TITULUA-
## ABIADURA MUGAK.

### KAPITULU BAKARRA. ABIADURA MUGAK HERRIGUNEAN.

**Abiadurak**

**40. artikulua.-** Udal titulartasuneko bide publikoetan zirkulatu ahal izateko gehieneko abiadura 30 km/h izango da, ordenantza honetan edo aplikatzekoa den araudian xedatutako kasuetan izan ezik.

**Abiadura mugak**

**41. artikulua.-** Udal organo eskudunak abiadura muga hori murriztu ahal izango du, horretarako seinaleak erabiliz. Baldintza berberetan, mugak handitu ahal izango dira herri barruko zeharbideetan dagokion seinaleztapena erabiliz, herritik kanpo halako bideetarako ezarritako muga generikoak inola ere gainditu gabe.

## -V. TITULUA-
## AZPIEGITURAK

### KAPITULU BAKARRA. LEHENTASUNEZKO ARRETA BIDEAK

**42. artikulua.-** Ondarroako Udalak, oinezkoen eta bizikleta gidarien eta ibilgailu motordunen eta ziklomotorren arteko bizikidetza harmonizatuagoa izan dadin eta larrialdietako zerbitzuko ibilgailuen sarbidea bermatzeko, **lehentasunezko arretako lau bide** mota ezartzen ditu.

**43. artikulua.- II. eranskinean "OINEZKO-BIZIKLETA GUNE"** gisa definitutako eta jasotako lehentasunezko arretako bide eta kaleek honako murrizketa hauek izango dituzte:

a. Oinezkoek, zikloek, bizikletek eta mugikortasun pertsonaleko ibilgailuek bakarrik erabiltzeko bideak dira.

b. Debekatuta dago ibilgailu motordunak eta ziklomotorrak zirkulatzea, gelditzea eta aparkatzea, Udaltzaingoaren edo udal organo eskudunaren berariazko baimenik eduki ezean.

**44. artikulua.-** II. eranskinean **"GUNE HISTORIKO", "ALDE ZAHAR GUNE"** eta **"KANTTOIPE GUNE"** gisa jasotzen diren bideek eta kaleek honako murrizketa hauek izango dituzte:

1. Debekatuta dago ibilgailu motordunak eta ziklomotorrak II. eranskinean jasotako ordutegietatik kanpo zirkulatzea, gelditzea eta aparkatzea, tartean baimen iraunkor bat, zirkunstantzial bat edo urgentziazko bat dagoenean izan ezik.

   a) Ebazpen arrazoitu baten arabera, alkateak edo zinegotzi delegatuak II. eranskinean adierazitako ibilbideak eta ordutegiak aldatu ahal izango ditu.
   b) Baimen iraunkorra, baimen hori eman zuen organoak ezeztatu ahal izango du, eta hiru urtean behin berrituko da.

ZIRRIBORROA

c) Toki administrazioak emandako baimenaren egiaztagiria ibilgailuaren haizetakoan jarriko da, ondo ikusteko moduan.

2.- Udal-organo eskudunak baimen iraunkorra eman ahal izango du ibilgailu motordunen zirkulaziorako, gelditzeko eta aparkatzeko, betiere III. eranskinean zerrendatzen diren baldintzak betez eta zamalanak egiteko xede bakarrarekin, eta ordenantza honen II. eranskinean zehazten diren mugak errespetatuz. Era berean, KANTTOIPE guneari eta gune HISTORIKOARI sarbidea ematen dien baimen iraunkorraren emakidadunek ere zirkulatu ahal izango dute, ordenantza honetan ezarritako zirkulazio-zentzuak errespetatuz, Kafekoatze izeneko eremuan berariaz gaitutako lubetetan aparkatzeko.

3.-Udaltzain arduradunek baimen zirkunstantziala eta urgentziazkoa emango dute, honako irizpide hauen arabera:

1. Baimen zirkunstantziala. Mudantzak, obrak edo ezaugarri berdineko beste zirkunstantzien ondoriozkoak egiteko, baldin eta ezin badira ibilgailu motordunen zirkulazio askerako ezarritako aldian egin.
2. Urgentziazko baimenak. Sartutako bideetan helbideratuta dauden herritarren gaixotasun edo eragozpen fisikoagatiko larrialdiak.

4.- Nolanahi ere, abiadura muga 20 km/h tartean ezarriko da, eta ibilgailu motordunek eta ziklomotorrek bai oinezkoei bai ziklo eta bizikleta gidariei utziko diete pasatzen.

5.-Era berean, debekatuta dago 3.500 kg-tik gorako BGMa duten ibilgailuak ibiltzea, Udaltzaingoaren berariazko baimena duten ibilgailuak izan ezik.

6.-Artikulu honetan zirkulatzeko eta gelditzeko ezartzen diren mugek ez diete eragingo honako ibilgailu hauei:

a.- Suteak itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuenei, Udaltzaingoarenei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Polizienei, anbulantziei eta zerbitzu publikoak ematea dagokien guztiei.

b.- Beren eginkizunak betetzean, ur zerbitzu, argiteria publikoko, gas, bide garbiketa, farmazialari, hileta zerbitzu eta hileta zerbitzuarekin doazen senideenei.

**Arau hau haustea arau hauste arintzat hartuko da.**

ZIRRIBORROA

# -VI. TITULUA-
# -GELDITZEA ETA APARKATZEA-

## I. KAPITULUA.- SALGAIEN ZAMALANAK

### Arau orokorrak

**45. artikulua.-** Zamalanetarako eremua bide publikoan dagoen eremu bat da, eta horrela identifikatuta edo mugatuta eta seinaleztatuta dago. Bertan ibilgailuak aparkatu ahal izango dira zamalanak egiteko behar-beharrezkoa den denboran. Zamalanetan, ibilgailutik gertu langileak egongo dira erraz ikusteko moduan, eta trafiko agenteen errekerimendu posibleei erantzuteko zain.
**46. artikulua.-** Bide publikoan zamalanak egitea salgaiak higiezin edo lokal komertzial batetik aparkatutako ibilgailu batera eramatea da, edo alderantziz, baldin eta ibilgailu hori jarduera hori egiteko baimendutakotzat jotzen bada**.**
**47. artikulua.-** Horretarako erreserbatutako eremuetan egingo da, baimendutako ordutegian, eta dagokion seinaleetan jasoko da.
Zamalanak bidetik kanpo egin beharko dira, ahal dela lokal komertzial eta industrialen barruan, baldin eta baldintza egokiak badituzte. Salbuespen gisa, lanok bidean bertan egin behar direnean nahitaez, gainerako bide-erabiltzaileei arrisku edo nahasmendu larririk eragin gabe egin beharko dira, eta honako arau hauek hartu beharko dira kontuan:

a. Ordenantza edo instrukzio honetan udal agintaritzak zehaztutako ordutegi eta espazio arautuak errespetatuko dira.
b. Zamalanak, ahal dela, galtzadaren edo deskarga puntuaren ertzetik hurbilen dagoen ibilgailuaren aldetik eta atzealdetik egingo dira, finketarako eta lokal komertzialetarako sarbidea oztopatu barik.
c. Lanak ahalik eta azkarren egiteko behar diren baliabideak erabiliko dira, zarata eta beharrezkoak ez diren eragozpenak ekidinez, batez ere gaueko orduetan.
d. Debekatuta dago salgaiak igarobidean uztea.

e. Salgai deseroso, kaltegarri, osasungaitz edo arriskutsuen zamalanak, bai eta horiek maneiatzeko berezitasunak dituztenak ere, gai hori arautzen duten xedapen espezifikoen arabera arautuko dira, gainera.

f. Zamalanak egitean oinezkoentzat edo ibilgailuentzat arriskurik sortzen bada, eremua babestu eta seinaleztatu beharko da, indarrean dagoen araudiaren arabera.

g. Baimendutako Gehieneko Masaren mugaketa lehentasunezko arreta bideak diren bide motaren eta ingurunearen arabera egingo da.

h. Hirigintzako lizentzia behar duten oin berriko eraikinak eraikitzean, eraispen obrak, eraberritze obrak (osorik edo zati batean), indusketa lanak eta abar egitean, obra lizentzien eskatzaileek egiaztatu beharko dute obraren barruan badauzkatela zamalanetarako aparkalekuak. Hori ezinezkoa denean, bide publikoaren erreserba guneak -obren ondoriozkoak- eskatzaileak eskaera arrazoitua eginez emango dira, eta eskatzaileak berak egiaztatu beharko du eskatutako espazioa ez dagoela erabilgarri, harekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

ZIRRIBORROA

## II. KAPITULUA.- GELDITZEA ETA APARKATZEA

### Gelditzea eta aparkatzea, arau orokorrak.

**48. artikulua.-** Ibilgailu bat herri barruko bide batean gelditu eta aparkatzeko, ibilgailua galtzadaren eskuineko ertzetik ahalik eta gertuen jarri behar da, salbu eta noranzko bakarreko bideetan, non ezkerreko aldean ere jarri ahal izango den, baldin eta kalearen zabalerak ibilgailuak galtzadatik ibiltzea ahalbidetzen badu. Nolanahi ere, debekatuta dago behar baino leku gehiago hartzea eta 25 cm baino gehiago uztea espaloiaren zintarriaren eta ibilgailuaren gurpilen kanpoko gainazalaren artean.
**Arau hau haustea arau hauste arintzat hartuko da.**

**49. artikulua.-** Ibilgailu bat zeharbidean gelditu eta aparkatzeko, galtzadatik kanpo egin behar da beti, galtzadaren eskuineko aldean, eta bazterbidearen zati ibilgarria libre utzita.

**50. artikulua.-** Ibilgailuak zirkulazioa ez oztopatzeko eta gainerako bide erabiltzaileak arriskuan ez jartzeko moduan gelditu eta aparkatu behar da ibilgailua. Arreta berezia jarri behar da ibilgailuan, eta, gidaria ez dagoenean, ez da mugitu behar.

**51. artikulua.-** Debekatuta dago ibilgailu motordunak eta ziklomotorrak leku berean eta 30 egunez jarraian baino luzaroago aparkatzea.

**52. artikulua.-** Guztiz debekatuta dago 3.500 kg-ko BGMa edo 6,2 metroko luzera gainditzen duten ibilgailu guztiak aparkatzea herri barruko bideetan, horretarako berariaz prestatutako eta seinaleztatutako lekuetan izan ezik.

**53. artikulua.-** Debekatuta dago atoiak eta erdi-atoiak trakzio ibilgailutik aldenduta aparkatzea.

**Arau hau haustea arau hauste arintzat hartuko da.**

ZIRRIBORROA

## III. KAPITULUA. MOTOZIKLETAK ETA ZIKLOMOTORRAK APARKATZEA

**54. artikulua.-** Arau orokor gisa, bi gurpileko motozikletak eta ziklomotorrak horretarako jarritako eremuetan gelditu eta aparkatuko dira. Debekatuta dago arkupetan eta espaloietan eta oinezkoentzako guneetan aparkatzea, berariaz horretarako egokitutako eta mugatutako lekuetan izan ezik.

**54.1. artikulua**.- espaloietan eta oinezkoentzako guneetan motorrak eta ziklomotorrak aparkatzeko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Zintarritik 50 cm-ra.
b) Zintarriarekiko paraleloan, espaloiek eta oinezkoentzako guneek 2 metrotik 6ra bitarteko zabalera dutenean.
c) Zeharkako baterian, espaloien eta oinezkoentzako guneen zabalera 6 metrotik gorakoa denean.
d) Espaloietara eta oinezkoentzako guneetara motorra itzalita eta eserlekua okupatu gabe sartuz. Zintarriaren malda gainditzeko bakarrik erabili ahal izango da motorraren indarra, eta ezin izango da sartu oinezkoentzako pasabideetatik motorra martxan dagoela eta eserlekuan eserita.

## IV. KAPITULUA. DESGAITASUNEN BAT DAUKATEN PERTSONENTZAKO APARKALEKUA

**55. artikulua.** Minusbaliatuek bakarrik erabiltzekoak diren eremu seinaleztatuetan, haizetakoan indarreko aparkatzeko txartela jarrita daukaten automobilek eta ibilgailu misto moldagarriek bakarrik aparkatu ahal izango dute. Hala, txartelaren aurrealdea Ondarroako udaltzainek ibilgailuaren kanpotik irakurtzeko moduan egongo da. Txartelaren zer-nolak desgaituentzako aparkatzeko txartela arautzen duen martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuaren I. eranskinean zehaztuta daude.

**56. artikulua.-** Aparkatzeko txartela titularrak ibilgailua gidatzen duenean edo bertan eramana denean bakarrik erabiliko da.

**57. artikulua.-** Aparkatzeko txartelak balio izango du horretarako adierazitako lekuetan aparkatzeko, bai eta aparkatzeko debekatuta dauden lekuetan aparkatzeko ere, txartelaren titularra uzteko edo jasotzeko behar den denboran soilik, eta salbuespen hauekin:

– Ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioa oztopatzen edo arriskuan jartzen den lekuetan.

– Oinezkoentzako guneetan, nasetan eta espaloi eta oinezkoentzako pasabideetan.

– Gelditzea debekatuta dagoen lekuetan.

– Pasabideak edo larrialdietako irteerak oztopatzen diren lekuetan.

– Zirkulazio erreiak murrizten diren espazioetan ("ilara bikoitzak").

ZIRRIBORROA

**58. artikulua.-** Aparkatzeko txartela erabiltzeko lehen adierazitako baldintzaren bat ez betetzea azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretu kenduaren 94.2.d artikuluaren arau haustea izango litzateke.

## V. KAPITULUA. ERABILTZAILE JAKIN BATZUEN ZERBITZURAKO BAKARRIK ERRESERBATUTAKO BIDE ZATIAK

**59. artikulua.-** Aparkatzeko egokia den galtzadari eragiten dioten obrak, jolas jarduerak, aisialdikoak, kirol jarduerak, ekitaldi politikoak edo jaiegunak egiteko, enpresa esleipendunak seinaleak jarriko ditu, obra pribatua denean, eta udaltzainek gainerako kasuetan, aparkatzea debekatuta dagoela adierazten duten aldi baterako seinaleekin (R-308), obra edo ekitaldia hasi baino **48** ordu lehenago. Ekitaldi horretan bertan, eragindako ibilgailuen akta egingo dute udaltzainek, eta titularrek edo gidariek ibilgailuok lekutik kendu beharko dituzte.

**60. artikulua.-** Obraren sustatzailea edo esleipenduna auzo-erkidegoak edo baliabide mugatuak dituzten enpresak direnean, udaltzainek eskatutako seinaleak jarriko dituzte, komodatu gisa.

**61. artikulua.-** Administrazio-organo eskudunak, seinaleztapen egokiaren bidez, gune edo aparkalekuak erreserbatu ahal izango ditu, elkarteek, erakunde publikoen mendeko erakundeek eta, egoera psikofisikoagatik, turismo edo ibilgailu misto moldagarri bat irisgarri izateko premia larria duten pertsona fisikoek bakarrik erabiltzeko.

**61.1. artikulua.-** Behin hasitako prozedura amaituta, alkateari dagokio pertsona fisikoentzako aparkalekuen erreserba baimentzea. Espedientea ebazteko, nahitaezkoa izango da udaleko gizarte-langileek egindako txostena, non arrazoituta azalduko baita prerrogatiba hori esleitu behar den ala ez.

## VI. KAPITULUA.- IBIA.

**62. artikulua.- "IBITZAT"** hartuko da hala seinaleztatuta dagoen bide publikoko gunea, hau da, higiezin batean ibilgailuen sarrera eta irteera hartzen dituena, eta denbora guztian oztoporik gabe dagoena. Ibiaren seinale bertikalarekin batera sigi-sagan egindako marka hori bat duen seinale horizontal bat dagoenean, ibiaren eragin eremua seinalea hartzen duen eremura zabalduko da. Nolanahi ere, udalak emandako ibi lizentziak indarrean egon beharko du, bidearen gainerako erabiltzaileei aparkatzeko debekua zabaltzeko seinaleak.

# VII. TITULUA.- BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK ETA BESTE NEURRI BATZUK

## I. KAPITULUA. IBILGAILUAK IBILGETZEA

**63. artikulua.-** Ibilgailua ibilgetzea.

1. Ibilgailu bat ibilgetu ahal izango da, baldin eta:

   a. Ibilgailuak ez badu zirkulatzeko administrazio baimenik, dela lortu ez duelako, dela baliogabetu egin dutelako, dela indarraldia amaitu zaiolako.

ZIRRIBORROA

b. Ibilgailuak bide segurtasunerako arrisku bereziki larria dakarten akatsak baditu.
c. Gidariak edo bidaiariak babes kaskoa erabiltzen ez badu, nahitaezkoa denean.
d. 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 14.2 eta 3. artikuluetan aipatzen diren probak egiteari uko egiten bazaio, edo probek emaitza positiboa ematen badute.
e. Ibilgailuak nahitaezko asegururik ez badu.
f. Gidaldiak gainditzen badira edo erregelamenduz ezarritako atsedenaldiak %50 baino gehiago murrizten badira, salbu eta gidaria beste batekin ordezten bada.
g. Ibilgailua gehiegi okupatzen bada eta, ondorioz, baimendutako plaza-kopurua, gidariarena izan ezik, %50 handitzen bada.
h. Ibilgailuak erregelamendu bidez baimendutako gas, ke eta zarata mailak gainditzen baditu, ibilgailu motaren arabera.
i. Kontrol tresnen manipulazioa agerian uzten duten arrazoizko zantzuak badaude.
j. Ibilgailuak, irudiak hartuz, trafiko agenteen eta kontrol bitartekoen zaintza saihesteko mekanismoak edo sistemak dauzkala detektatzen bada.
k. Arau hausleak ez badu egiaztatzen legezko bizilekua Estatuan duela, agente salatzaileak isunaren zenbatekoa zehaztuko du behin-behinean, eta, isunaren zenbatekoa gordailutu ezean, gidariak ibilgailua agente salatzaileak adierazitako lekura eraman eta ibilgetu beharko du. Gordailua kreditu txartelaren bidez egingo da, eta, nolanahi ere, kontuan hartuko da 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 94. artikuluan xedatutakoa, hasieran ezarritako isuna %50 murrizteko aukerari dagokionez.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik salbuetsita geratzen dira 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 97. eta 98. artikuluetan informazioa mugaz haraindi trukatzeko ezarritako prozeduraren esparruan egindako arau hausteak.

Ibilgetzea eragin zuen arrazoia amaitzen denean amaituko da ibilgetzea.

1. ataleko h, i eta j paragrafoetan xedatutako kasuetan, ibilgailua agintaritzaren agenteak izendatutako tailer batera eramanez gero baino ez da kenduko ibilgetzea, baldin eta agenteak egiaztatzen badu sistema galdu egin dela edo manipulazioa detektatu dela, edo baimendutako mailak gainditzen ez badira.

2. 1. ataleko e paragrafoan jasotako kasuan, Bide Zirkulazioko Erantzukizun Zibilari eta Aseguruari buruzko urriaren 29ko Legearen testu bateginean xedatutakoa beteko da.

3. Ibilgailua agintaritzako agenteek adierazitako lekuan ibilgetuko da. Horretarako, agenteak ibilgailuaren gidariari jakinarazi ahal izango dio adierazitako lekuraino zirkulatzen jarraitzeko.

4. Ibilgailua elementu mekaniko bidez (zepoa) ibilgetzearen ondorioz sortzen diren gastuak arau haustea egin zuen gidariaren kontura izango dira. Halakorik ezean, ohiko gidariaren edo errentariaren kontura izango dira, eta, halakorik ezean, titularraren kontura. Ibilgetzeko neurria kendu aurreko baldintza, gastuak ordaintzea izango da; horrek ez du esan nahi, ordea, dagokion defentsa eskubidea erabiliko ez denik eta Administrazioak neurri hori hartzea eragin duen arduradunari jasanarazteko aukera egongo ez denik.

1. ataleko h, i eta j paragrafoetan xedatutako kasuetan, salatuak ordaindu beharko ditu ikuskapen gastuak, arau haustea egiaztatzen bada.

ZIRRIBORROA

5. Ibilgetutako ibilgailua errentamendu erregimenean erabiltzen bada, arau hausleak ibilgailua erabiltzeko debekua izango du, ibilgailua ibilgetzearen ordez.

## III. KAPITULUA. IBILGAILUAREN HONDAKIN TRATAMENDUA.

**64. artikulua.-** Ondarroako udaltzainen burua izango da ibilgailua Ibilgailuen Tratamendurako Zentro Baimendu batera eramateko agintzeko eskumena duena, ondoren suntsitu eta deskontaminatzeko:

a. Bi hilabete baino gehiago igaro direnean ibilgailua ibilgetu edo bide publikotik erretiratu eta Administrazioak gordailutu duenetik, titularrak alegaziorik jarri gabe.
b. Leku berean hilabetean baino gehiagoan aparkatuta egon eta bere kabuz mugitzea eragozten duten kalteak baditu, eta matrikula plakak falta bazaizkio.
    1. Nolanahi ere, ulertuko da ibilgailu bat ezin dela bere kabuz mugitu ondoren zehazten diren baldintza teknikoetakoren bat betetzen ez duenean:
        **i.** Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duen abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren III. eranskinean jasotako atzerako ispilurik ez izatea.
        **ii.** Gidari nahiz laguntzaile eserlekuak ibilgailuaren egiturari tinko ainguratuta ez edukitzea.
        **iii.** Gurpilen bat edo bi pneumatiko edo gehiago ez baditu, zirkulatzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez baditu.
        **iv.** Ibilgailuak haizetakorik ez izatea edo bidea garden ikustea eragozten duen hausturaren bat izatea.
        **v.** Ibilgailuaren direkzioari eusteko eta hura erraz, azkar eta segurtasunez aldatzeko mekanismo egokirik ez izatea.
        **vi.** Motorrik ez edukitzea.
        **vii.** Balazta mekanismorik ez edukitzea.
        **viii.** Seinaleztapen eta/edo argiztapen mekanismorik ez edukitzea.

Ibilgailua lekualdatzeko agindua eman baino lehen, administrazioak errekerimendua egingo dio titularrari, eta ohartaraziko dio hilabeteko epean kendu ezean Tratamendurako Zentro Baimendura eramango dela.

**65. artikulua.-** Komenigarritzat jotzen den kasuetan, alkateak edo dagokion agintari eskuordetuak ibilgailua suntsitzearen ordez zirkulazioa zaintzeko eta kontrolatzeko zerbitzuei ematea erabaki ahal izango du.

ZIRRIBORROA

# -VIII. TITULUA-

## I. KAPITULUA. ZEHAPEN PROZEDURA

**66. artikulua.- Organo instruktore eta zehatzaile eskudunak**
Trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide segurtasunaren arloko arau hausteengatik hasitako espedienteen instrukzioa udaltzainen buruak egingo du, eta, amaitu ondoren, alkateak dagokion ebazpena emango du.
Udaltzainen burua errekusatzen bada edo abstenitzen bada, Udaltzaingoko lehen agentearen esku geratuko da instrukzioa, edo, hura ez badago, alkateak izendatutako agentearen esku.

**67. artikulua.- Espedienteak administrazio eskudunari bidaltzea**

Badira herri barruko bidean egindako arau hauste batzuk alkateak zehatzen ez dituenak. Kasu horietan, udal agenteek edo haien laguntzaileek salatuko dituzte, eta instruktoreak administrazio eskudunari bidaliko dizkio.

## II. KAPITULUA. ARAU HAUSTEAK

**68. artikulua.-** Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren aurkako egite edo ez-egiteak, hala badagokio, erregelamendu bidez garatzen direnak, arau hauste administratibotzat hartuko dira, eta bertan zehazten diren kasuetan, moduan eta neurrian zehatuko dira.

Egiteak edo ez-egiteak zigor arloko legeetan tipifikatutako delitu edo delitu arinak izan badaitezke, aipatutako lege arauaren 85. artikuluan xedatutakoa beteko da.

**69. artikulua.-** Aurreko atalean aipatutako arau hausteak arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke.

## III. KAPITULUA. ZEHAPENAK

**70. artikulua.-** Arau hauste arinak ohartarazpenarekin edo 80 eurorainoko isunarekin zehatuko dira, IV. eranskinean xedatutako arau hausteen taularen arabera; astunak, 200 euroko isunarekin; eta oso astunak, 500 euroko isunarekin. Dena den, abiadura mugak ez errespetatzearen ondoriozko arau hausteak zehatzeko, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren IV. eranskinean xedatutako zenbatekoa aplikatuko da.

**71. artikulua.-** Ohartarazpen zehapena ezartzeko, inguruabar hauek hartuko dira kontuan:

A) Arau haustea behin eta berriz ez egin izana, alegia, arau hausleari lau urteko epean arau hauste arin, astun edo oso astun bat edo batzuk egiteagatik administrazio honek zehapenik ez jarri izana.

ZIRRIBORROA

B) Arau haustearen inguruabarrak.

C) Agente salatzaileari entzunaldia emango zaio, eta gertakariez egiten duen balorazioa haztatuko da.

**72. artikulua.-** Lehen xedatutakoaren kalterik gabe, zehapenak ezartzean honako hauek hartu beharko dira kontuan:

a. 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 77.j) artikuluan xedatutako arau hausteagatiko isuna hura eragin zuen jatorrizko arau haustearentzat xedatutakoaren bikoitza izango da, arau hauste arin batez ari bagara, eta hirukoitza, arau hauste astun edo oso astun batez ari bagara.
b. 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 77.h) artikuluan jasotako arau haustea 6.000 euroko isunarekin zehatuko da.
c. 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 77. n), ñ), o), p), q) eta r) artikuluetan jasotako arau hausteak 3.000 euroko isunarekin zehatuko dira.

## <u>IV. KAPITULUA. ARAU HAUSTE ASTUNDUAK.</u>

**73. artikulua.-** 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 80.1 artikuluan xedatutako isunen zenbateko ekonomikoa %30 igoko da honako kasu hauetan:

a. Turismo bat edo ibilgailu misto moldagarri bat aparkatzea desgaitasuna duten pertsonek erabiltzeko erreserbatutako aparkalekuetan, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela erabiliz, titularra hil denean, absente deklaratu denean, zentro psikiatriko batean edo egoitza batean sartuta dagoenean.
b. Edonola ere, arau hausleak behin eta berriz egiten duenean arau haustea. Hori gertatzen da baldin eta arau hausleari, urtebeteko epean, Ondarroako alkateak hiru arau hauste edo gehiagorengatiko zehapena ezarri badio. Ohartarazpen zehapena kontuan hartuko da aginduzko arau hau aplikatzeko.

**74. artikulua.-** 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 77. artikuluko n, ñ, o, p, q ataletan jasotako arau haustearen ondorioz ondasun higigarriei edo higiezinei kalteak eragiten bazaizkie, erantzuleari 6.000 euroko zehapena ezarriko zaio.

**75. artikulua.-** 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 77. artikuluko n, ñ, o, p, q ataletako arau haustea egiteagatik 10/1995 Lege Organikoaren 147. artikuluan jasotako lesioak eragiten badira, edo heriotza gertatzen bada, erantzuleari 15.000 euroko zehapena ezarriko zaio.

## V. KAPITULUA

## ZIRKULAZIOAREN ONDORIOZKO BESTE JOKABIDE DEBEKATU BATZUK.

**76. artikulua.-** Ibilgailuak ibilgetzeko edo zigilatzeko aginduak urratzea arau hauste arintzat hartuko da, eta 400 euroko zehapena ezarriko da, Toki Gobernua Modernizatzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 139. artikuluaren arabera.

ZIRRIBORROA

**77. artikulua.-** Desgaitasunen bat duten pertsonentzako aparkatzeko txartela edo erregelamendu honen 47.1.c artikuluan aipatzen den bereizgarria erabiltzea arau-hauste arintzat hartuko da, eta 400 euroko zehapena jasoko du, txartela guztiz edo zati batean simulatuta badago, haren benetakotasunari edo funtsezko elementuren edo betekizunen bati buruzko nahasmendua eragiteko moduan, dokumentu ofiziala faltsutzeagatik sor daitekeen erantzukizun penalaren kalterik gabe, Toki Gobernua Modernizatzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 139. artikuluaren arabera.

## LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.

12 hilabete edo gehiago jarraian enplegu eskatzaile gisa inskribatuta daramala edo oinarrizko errenta jasotzen duela egiaztatzen duen pertsonak egindako arau hauste astun edo oso astunei dagokien isuna behin baino ezin izango da KOMMUTATU/ORDEZTU bide hezkuntzako sentsibilizazio jarduera batekin.
Agindu hori ez da aplikatuko zehapena ordenantza honen 72.a, 73., 74., 75. edo 76. artikuluak hausteagatik sortzen bada.

## BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.

Ordenantza hau indarrean sartu eta 12 hilabeteko epean, eskumena duen organoak 3500 kg-tik gorako BGMa edo 6,60 metroko luzera duten ibilgailuak aparkatzeko gaitutako lekuen katalogoa egin eta onartuko du. Era berean, aipatutako epean, erakunde horrek 53. artikuluan aipatzen diren motozikletak eta ziklomotorrak aparkatzeko baimendutako espaloien eta oinezkoentzako guneen tarteak ezarri eta gaituko ditu.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

Indargabetuta geratzen da Ondarroako herrigune historikoko trafikoa arautzen duen ordenantza.
Era berean, indargabetuta geratzen dira ordenantza hauetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko arau guztiak.

## AZKEN XEDAPENETATIK LEHENA

Ordenantza hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

## AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Alkatetzari baimena ematen zaio ordenantza hau interpretatu, argitu eta garatzeko, administrazio prozedura erkideari buruz indarrean dagoen legerian jasotako printzipioen arabera.

ZIRRIBORROA

**<u>1. eranskina</u>**

**<u>Udal eskumenaren lurralde mugak.</u>**

**Markinaranzko norabidean:**

**a.** Arana tar Sabin kalean dagoen biribilgunea, biribilgunea barne
**b.** Kamiñazpi kalearen eta BI-638 errepidearen arteko bidegurutzea

**Mutrikuranzko norabidean:**

a) Txori Erreka eta Itsas Aurre kaleak elkartzen diren biribilgunea, biribilgunea barne.
b) Zaldunbide kalearen eta BI-633 errepidearen arteko bidegurutzea.

**Lekeitioranzko norabidean:**

**<u>Auzoak:</u>**

**Gorozika auzorako norabidean:**
**Errenteria auzorako norabidean:**

**<u>Udalaren eskumeneko bide, kale eta auzoak.</u>**

